EUSKAL PRESOAK. Familiak preso baten bidez jakin zuen berria

Barandalla berriz eraman behar izan dute ospitalera

Zaragozako ospitalean ingresatu zuten hesteetako buxadurarekin

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Bautista Barandalla Etxarri Aranatzeko (Nafarroa) presoa berriz eraman dute Zaragozako kartzelatik Miguel Servet ospitalera. Barandallari maiatzaren 16an eman zioten senda-agiria ebakuntza egin eta heste lodia kendu ondoren, eta geroztik jada bi aldiz eraman behar izan dute ospitalera.

Maiatzaren 19an larrialdietara eraman zuten sabeleko minak eta botalarria zituelako. Ordu batzuz han egon ondoren gastroenteritisa zuela esan, eta kartzelara eraman zuten berriro. Atzo, astebeteren buruan berriz ingresatu zuten ospitalean.

13:00etan eraman zuten ospitalera, larrialdietara, baina ondoren ingresatu egin zuten, Etxerat-ek jakinarazi zuenez. Hesteetako buxadura duela esan zioten familiari. Etxerat-ek salatu zuen familiak beste preso politiko batek eginiko telefono deiaren bidez jakin zuela Barandalla ospitalera eraman zutela. Elkarte horren arabera, ez da hori gertatzen den lehenengo aldia.

Senda-agiria jaso zuenetik espetxean egin duen denboran bakarrik egon da erizaindegian, eta janari desegokia eman diote, Etxerat-ek salatu zuenez. Elkarte horrek oroitarazi du Barandallak gaixotasun larri eta sendaezina duela eta 92. artikulua eskatua duela. Era berean, epaileak berari buruz erabaki artean Iruñeko kartzelara ekartzeko eskatu zuen, baina ukatu egin diote.

Zaragozako espetxean bere osasun egoera ez dagoela «bermatuta» iritzi dio Etxerat-ek. Osa dadin senideengandik gertu egotea beharrezkoa dela erantsi zuten, eta hura askatzeko eskatu.

JOSE CAMPOS BAUTISTA BARANDALLA PRESOAREN NESKA-LAGUNA

«Edozein unetan sustoren bat eman diezaguke, eta ezin du kartzelan egon»

Irene Arrizurieta | **IRUÑEA**

Jose Camposek urteak daramatza Barandalla espetxean bisitatzen. Atzo elkarrizketa egin zion EGUNKARIAk, eta ondoren jakin zen mutil-laguna ospitalera eraman zutela.

■ Larunbatean Bautista ikustera joan zinen Zaragozako espetxera. Nola aurkitu zenuen?

Duela bi aste oso argala ikusi nuen, baina larunbatean asko hunkitu ninduen. Aiton-itxura hartu du, erdi makurtuta dabil. Gehiago argaldu da, jada 23 kilo. Orain 59 kilo inguru pisatzen ditu. Dena dela, animoz hobekiago aurkitu nuen. Aurretik espetxeko erizaindegian egon da eta oso kaltegarria izan da beretzat. Bautista hogeita lau orduak bakarrik egon da, eta ez diote dieta kontrolatu. Batzuetan behar zuen dietaren kontrakoa ezarri diote edo aldatu egiten zioten. Otorduan plater bakarra ematen zioten. Eguerdian ematen ziotena berriro jaten zuen gauean.

Orain lasaiago dago berriro Unai ziegakidearekin dagoelako. Ez dago bakarrik, eta dutxa daiteke erortzeko edo zorabiatzeko beldurrik gabe. Heste lodia kendu diotenez, hestearen zati bat kanpoan du eta horretan poltsa bat jarri diote dena kanpora dezan.

LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Komunera pixa egitera soilik joaten da, eta bestea poltsara botatzen du. Heste zuzenaren zentimetro bat utzi diote. Berreskuratzen denean eta indarrez ongi dagoenean, medikuek poltsa hestearekin lotuko diote, komunera arazorik gabe joateko eta bizi «normala» egin ahal izateko. Baina orain espetxean dagoenez, besteak dutxatzen diren toki berean hartzen du dutxa, poltsa aldatzen duenean kanpoan duen hestea ezerk ez dio babesten. Edozein unetan sustoren bat eman diezaguke.

■ Zer bilakaera izan du?

Ebakuntza ongi atera da, baina hestea kanpoan duenez eta espetxean dagoenez, oso adi egon behar dugu. Osteguneau espetxera eraman zuten eta igandean berriro ospitalean ingresatu zuten, gastroenteritisa harrapatu zuelako. Beste modu batean bizitzen ohitzen ari da. Errekuperazioan aurrea egiteko gogoarekin dago, baina, oraingoz, oztaozta mantentzen da zutik. Horrek baieztatzen digu Bautistak ezin duela espetxean egon, ez duelako defentsarik. Espetxean beste gaitzen bat sortzen bada, auskalo zer gertatuko zaion.

■ Iruñeko espetxera ekartzeko eta, gaitz sendaezina duenez, aske uzteko ere eskatu zenuten. Horri buruz erantzunik jaso duzue?

Zaragozako epaileak ez digu oraindik erantzun. Epailea bihar [gaur] espetxera joatekoa da eta Bautistak eskatu du elkarrizketa harekin. Iruñera ekartzea ukatu egin zuela aintzat hartuz, beste ezezko bat jaso dezakegu erantzun gisa.

■ Hainbeste bidaia eta gorabehera, nola bizi dituzue?

Gaizki. Bi hilabete eman ditut Zaragozan, Bautista egunean ordu erdi bakarrik ikusteko. Gure 13 urteko alabak ez zuen deus ulertzen, Etxarri-Aranatzen zegoen aita gaizki zuela eta amarik gabe. Ez dut sinesten arazoak bukatu direnik. Bera bakarrik egon da eta ni Zaragozan egon arren, ezin nion lagundu.

LABURREAN

Laudioko eta Gueñeseko udalek bat egin dute Eudelek aurkeztutako mozioarekin

Eudelek aniztasunaren alde aurkeztutako mozioa onartu zuten atzo Laudioko eta Gueñeseko udalek. Laudioren kasuan, Batasunak gobernatzen duen lehen udala da Eudelen Adierazpena onartzen duena. Mozioak EAJ, EA, PSE-EE eta PPren botoak jaso zituen. Batasuna aurka azaldu zen. Era berean, Gueñesko Udalak ere bat egin zuen Eudelekin. Mozioak EAJ, PSE-EE eta PPkozinegotzien aldeko botoa izan zuen. Batasuna eta EA abstenitu egin ziren. Horren gain, Batasunak aurkeztutako mozio alternatiboa baztertu egin zuten EAJk eta PPk. Bestalde, gaur Basauri, Amorebieta eta Ugao-Miraballeseko udaletan eztabaidatuko da aipatu mozioa.

Singapurko lehen ministroaren bisitari buruzko mozioa aurkeztu dute Bilbon

EAJ-EA eta ICV koalizioak —Bilboko Udal gobernua osatzen dute— premiazko mozioa aurkeztu zuten, Singapurko lehen ministroak Guggenheim museora egin behar zuen bisita bertan behera uzteko «arrazoiez» galdetuz. Azalpenak Espainiako Gobernuari eskatu dizkiote aipatu alderdiek. Mozioa maiatzaren 30ean aztertuko du Bilboko udal batzarrak. Iñaki Azkuna alkateak adierazi zuen mozioarekin Bilboko agintarien «haserrea» adierazi nahi diola Madrili.

Elzok, «ikara dagoen herrietan» herritarrek hauteskunde zerrendak osatzea proposatu du

Javier Elzo soziologoak, «ikara dagoen herri eta eskualde txikietan» hauteskundeetara aurkezteko prest dauden pertsonekin zerrendak osatzea proposatu du. PSE eta PP alderdiek zerrendak osatzeko dituzten zailtasunez aritu zen Elzo, Bakearen Aldeko Koordinakundearen aldizkarian argitaratutako iritzi artikulu batean. Javier Elzok nabarmendu zuenez, bakearen aldeko taldeek lagundu dezakete «herritarraren artean kontzientzia sortzen».

batasuna

FORUMBILTARIA

DONOSTIA Igan.26
TOLOSA Astel.27
>ZUMARRAGA Astea.28
EIBAR Aste.29
ORERETA Oste.30
ATHARRATZE Osti.31
BAIONA Larun.1
AGOITZ Igan.2
TAFALLA Astel.3
LIZARRA Astea.4
BILBO Aste.5
AGURAIN Oste.6
GASTEIZ Osti.7
LAUDIO Larun.8
ZIORDIA Igan.9
BARAKALDO Astel.10
ONDARRUA Astea.11
GERNIKA Aste.12
LEITZA Oste.13
IRUÑEA Osti.14

• ESKUBIDE GUZTIAK • EUSK

GAUR BERGARA

(Lurralde antolaketarekin konpromisoa)

> 12:00 DURANGO. Eragile sozialekin FORUMA

> 18:00 ZUMARRAGA. Eragile ezberdinekin FORUMA ama lur aretoan.

> 19:30 BERGARA. Ekitaldia Elemental aretoan

BIHAR EIBAR

[Gure ekonomiarekin konpromisoa]

> 11:00 Eragile sozialekin FORUMA. Portalean

> 19:30 EKITALDIA, Untzaga Plazan

ETZI ORERETA

(Askatasun Demokratikoarekin konpromisoa)

> 18:00 Eragile sozialekin FORUMA erdialdeko auzo elkartean.

> 19:45 Zutabeak Oarso herritik Oreretara

> 20:00 EKITALDIA, Xenpelar Plazan